



A22 CLASS

**ERABILTZAILEAREN
ESKULIBURUA A22 CLASS**

Ezaugarriak

- Agenda pertsonala**, 60 sarrerarentzako edukiera duena. genda pertsonala, 60 sarrerarentzako edukiera duena. 12 karaktere alfanumerikoko izenak eta 24 digitu bitarteko telefono-zenbakiak.
- Markatze automatikoa** agenda pertsonaletik Markatze automatikoa agenda pertsonaletik.
- Pantailan deitzen duenaren telefono-zenbakia agertzen da.** Zenbaki hori agenda pertsonalean badago, pantailak izena ere erakusten du.
- Jaso eta erantzun gabeko deien erregistroa.** Telefonoak kanpoan zauden bitartean jasotako deiak gordetzen ditu eta jasotze-eguna eta -ordua adierazten ditu.
- Markatze automatikoa erantzun gabeko deien zerrendatik.
- Markatutako azken bost zenbakiak errepikatzen ditu.
- Ahots-postontziaren kontsulta-tekla.
- Euskaltelen** Bezeroarentzako Arretaren tekla.
- Deia zain zerbitzuaren tekla
- Hiruko deia tekla.
- 'R' tekla (telefonoguneekin erabiltzeko eta beste zerbitzu batzuetan sartzeko).
- Hiru txirrin-melodia.
- Txirrinaren bolumena erregula daiteke.
- Mezua zain dagoela jakinarazten duen adierazlea.
- Esku librekoaren funtzionamendua.
- Mahai gainekoa eta hormakoa.

Aurkibidea

1. Instalazioa eta konfigurazioa	
1.1 Edukia	<u>4</u>
1. Telefonoaren deskribapena	<u>4</u>
1.3 Instalazioa	<u>5</u>
1.4 Konfigurazioa	<u>5</u>
2. Pantailako informazioa	<u>6</u>
3. Funtzionamendua	<u>7</u>
3.1 Esku libreak	<u>7</u>
3.2 Agendan datuak sartzea	<u>7</u>
3.3 Sarrerako deiak Agendan sartzea	<u>8</u>
3.4 Jasotako deiak berrikustea	<u>8</u>
3.5 Jasotako deien zerrendatik markatzea	<u>8</u>
3.6 Agendatik markatzea	<u>9</u>
3.7 Markatutako azken bost zenbakiak	<u>9</u>
3.8 "R" tekla	<u>9</u>
3.9 Agendako edo sarrerako deien zerrendako informazioa ezabatzea	<u>10</u>
3.10 Memoria betea	<u>10</u>
4. Zerbitzu bereziak	<u>11</u>
4.1 Deiak desbideratzeko tekla	<u>11</u>
4.2 Deia zain	<u>11</u>
4.3 Hiruko deia	<u>11</u>
4.4 Ahots-postontzia	<u>12</u>
4.5 Zerbitzurako sarbidea	<u>12</u>
4.6 Bezeroarentzako zerbitzua	<u>12</u>
4.7 Reset	<u>12</u>
5. Arazoen konponketa	<u>13</u>
6. Mantentze-lanak	<u>14</u>

1 Instalazioa eta konfigurazioa


1.1 Edukia

Telefono-kaxaren barruan, elementu hauek egon behar dute:

1. Telefonoaren oinarri-unitatea
2. Entzungailua
3. Entzungailuaren kable kizkurra
4. Linearen kablea
5. Erabiltzailearen eskuliburua (ale hau)

1.2 Telefonoaren deskribapena

Irudiak telefonoaren osaera erakusten du, eta erabilgarria da terminala instalatzeko eta erabiltzeko.



(1. irudia)



1.3 Instalatzea

- 1 Konektatu kable kizkurraren muturra oinarriaren ezker aldean dagoen konektorearekin **(ikus 1. irudia)**.
- 2 Konektatu linearen kablearen mutur bat telefonoaren atzeko aldean eta bestea etxeko telefono-hartunean.

1.4 Konfigurazioa

Erlojua

Automatikoki doitzen da lehen deia jasotzean.

Hizkuntza

Euskara hautatzeko, sakatu **Menu** tekla inludir icono "EUSKERA" azaldu arte. Sakatu OK tekla berresteko.

Gaztelania hautatzeko, sakatu **Menu** tekla "CASTELLANO" azaldu arte. Sakatu OK tekla berresteko.

Txirrinaren bolumenaren kontrola

Deiaren txirrina hiru mailatan doi daiteke (altua-ertaina-baxua) telefonoaren atzeko aldean dagoen hautagailuaren bidez (linearen kablearen ondoan, kanpaiekin markatua).

Txirrinaren melodia hautatzea.

Telefono honek hiru melodia-mota hautatzeko eta desaktibatzeko aukera ematen du. Horretarako, prozedura honi jarraitu behar diozu:

- 1 Sakatu pantailaren ondoan dauden geziak "MELODIA" hitza atera arte. Orduan, sakatu OK tekla.
- 2 Pantailan oraingo txirrina agertuko da. Aldatzeko, erabili pantailaren ondoko geziak. Txirrinaren aukerak hauek dira: MELODIA 1, MELODIA 2, MELODIA 3 edo MELODIA OFF (azken horrek deiaren txirrina deskonektatzen du).
- 3 Txirrina aukeratutakoan, sakatu Ok tekla berresteko. Sakatu No/Ez aldaketak ezeztatzeko. Teklarik sakatu gabe 15 segundo igarotakoan, telefonoa pausagunera itzuliko da automatikoki eta egindako aldaketak ezeztatuko ditu.

Txirrinaren melodia hautatzea.

Esku libreko funtzioan entzuteko bolumena alda daiteke telefonoaren eskuinaldean dagoen hautagailuaren bidez.

2 Pantailako informazioa

Itxaroten dagoela, telefono-pantailak ordua erakusten du lehen lerroan. Bigarren lerroan, telefonoko memoria libreen kopurua agertzen da (Agendako datuak eta jasotako deiak batuta). Jaso eta erantzun gabe utzitako XX (bi digitu) dei daudenean, pantailak 'XX BERRI' erakutsiko du, XX dei berri jaso direla adierazteko. Deitu dutenen zerrenda kontsultatutakoan, pantailak okupatutako memorien kopurua erakutsiko du berriro.

Pantailan ager daitekeen informazio gehigarria eta haren esanahia erakusten ditu taula honek:

PANTAILA


DESKRIBAPENA

HASIERA

Zerrendan gordetako lehen datura iritsi dela adierazten du

AMAIERA

Zerrendan gordetako azken datura iritsi dela adierazten du



Mezua zain ahots-postontzian.

Ikur horrek ahots-postontzian mezuak daudela adierazten du. Ikurra pantailan egongo da mezuak entzun eta telefonoa 2 segundoz baino gehiagoz esekita eduki arte.



Bozgorailua.

Ikur hori orduaren ondoan agertzen da, telefonoa esku libreko funtzioan dagoenean. Hori bozgorailuaren tekla sakatzean gertatzen da.

Jaso den deiaren telefono-zenbakia nahita ezabatu denean agertzen da mezu hau pantailan (adibidez, deitzen duen erabiltzaileak)



Errepikatutako deia.

Ikur hori erantzun gabeko deien zerrenda berrikustean agertzen da. Erabiltzaile beraren hainbat dei jaso badira, telefonoak azken deiaren ordua bakarrik gordetzen du; ikono honek pertsona berak gehiagotan ere deitu duela adierazten du. Deia bistaratzean, ikurra desagertu egiten da.



Dei berria.

Ikur hori jasotako deien zerrenda berrikustean agertzen da. Telefonoak erantzun gabeko deiak zerrendan gordetzen ditu ezabatzen diren arte. Ikur honek dei berriak lehendik jasota eta oraindik ezabatu gabe dauden deietatik bereizten ditu. Deia bistaratutakoan, ikurra desagertu egiten da.

AHOTS-
POSTONTZIA

Ahots-postontziaren tekla sakatu eta ahots-postontzia egiaztatzen denean agertzen da pantailan

Euskaltel

Bezeraentzako Arretaren tekla

DEIA ZAIN

"Deia Zain" tekla sakatzean agertzen da pantailan

HIRUKO DEIA

"Hiruko Deia" tekla sakatzean agertzen da pantailan

AKTIBATUA

Desbideratzeko tekla sakatzean agertzen da pantailan. Kentzeko, tekla bera sakatu behar da.



3 Funtzionamendua

3.1 Esku libreak

Dei bat egitea:

1. Entzungailua hartu gabe, sakatu *Esku Libreak* tekla (ikus 1. irudia) markatzeko tonua lortu arte.
 2. Markatu nahi duzun zenbakia.
 3. Solaskideak erantzutean, elkarrizketa has dezakezu entzungailua hartu gabe.
 4. Deia amaitzeko, sakatu berriro Esku Libreak tekla.
- Agendatik edo deien erregistrotik automatikoki markatzen bada eta entzungailua hartu ez bada, telefonoak Esku Libreko moduan markatuko du.

Dei bat jasotzeko:

1. Deiak esku libreko sistema erabiliz erantzuteko, telefonoak jotzean *Esku Libreak* tekla -incluir icono- sakatu besterik ez duzu egin behar.
2. Deia amaitzeko, sakatu berriro Esku Libreak tekla.

3.2 Agendan datuak sartzea

1. Sakatu geziak pantailan "**GORDE**" funtzioa agertu arte. Sakatu OK berresteko.
2. Pantailan "**IZENA:**" agertuko da. Sartu gorde nahi duzun izena teklatura erabiliz eta sakatu Ok tekla berresteko. Errorea ematen badu, sakatu Ezabatu tekla -incluir icono- sartutako azken karakterea ezabatzeko.
3. Pantailan "**TEL:**" agertuko da. Orain telefono-zenbakia sartu behar duzu. Markatzean etena sartzeko, sakatu Etena tekla. Sakatu OK berresteko.

1. OHARRA: Zenbaki bat behar bezala sartzeko, aukera guztiak berretsi behar dira. Sarrera berretsi gabe uzten baduzu, zenbakia ez da gordeko, edo lehendik zegoen zenbakiren bat aldatzen ari bazinen, ez da aldatuko.

2. OHARRA: Memorian guztira 60 zenbaki sar daiteke. Memoria bakoitzak 12 karaktere alfanumerikoko edukiera du izenarentzat eta 24 digitukoa zenbakiarentzat.



3.3 Sarrerako deiak Agendan sartzea

Sartutako deien erregistroko dei bat agendan gordetzeko:

- 1.Sakatu Bilatu tekla. Pantailan hau bistaratuko da: **"JASOTAKO DEIAK"**.
- 2.Sakatu geziak jasotako deien erregistroan gorde nahi duzun deia hautatzeko.
- 3.Zenbakia pantailan dagoela, sakatu Editatu tekla zenbakiarekin lotutako izena sartzeko. Sakatu OK berresteko.
- 4.Orain zenbakia alda dezakezu, nahi izanez gero. Sakatu OK zenbakia berresteko.

1. **OHARRA:** Zenbaki bat behar bezala sartzeko, aukera guztiak berretsi behar dira. Sarrera berretsi gabe uzten baduzu, zenbakia ez da gordeko, edo lehendik zegoen zenbakiren bat aldatzen ari bazinen, ez da aldatuko.

3.4 Jasotako deiak berrikustea

Jasotako deiak ezabatu arte gordetzen ditu telefonoak. Jasotako deien zerrenda ikusteko:

- 1.Sakatu Bilatu tekla. Pantailan hau bistaratuko da: **"JASOTAKO DEIAK"**.
- 2.Erabili geziak jasotako deien zerrendan gordetako zenbakiak berrikusteko. Pantailan zenbaki bat bistaratzean, keinuka agertuko da. Pantailaren goiko aldean, deia zein ordutan eta zein egunetan jaso den agertuko da txandaka.

3.5 Jasotako deien zerrendatik markatzea

Jasotako deien zerrendan gordetako zenbaki bat markatzeko:

- 1.Sakatu Bilatu tekla. Pantailan hau bistaratuko da: **"JASOTAKO DEIAK"**.
- 2.Sakatu geziak jasotako deien erregistroan nahi duzun zenbakia bilatzeko.
- 3.Zenbakia pantailan dagoela, sakatu Ok tekla. Telefonoak automatikoki markatuko du hautatutako zenbakia.



3.6 Agendatik markatzea

Agendan gordetako zenbaki bat markatzeko:

1. Sakatu bi aldiz Bilatu tekla. Pantailan "**AGENDA:**" agertuko da.
2. Sartu deitu nahi diozun pertsonaren izenaren lehen letra. Sakatu OK berresteko.
3. Telefonoak hautatutako letrarekin hasten den lehen izena erakutsiko du pantailan. Geziekin, nahi duzun izena bila dezakezu. Pantailan agertutakoan, nahikoa da Ok sakatzea ekipoak zenbakia automatikoki marka dezan.

3.7 Markatutako azken bost zenbakiak

Telefono honek egindako azken bost deiak gordetzen ditu. Horietako bat berrikusteko edo errepikatzeko:

1. Sakatu Ok tekla telefonoa pausagunean dagoen bitartean. Geziekin, markatutako azken bost zenbakiak berrikus daitezke.
2. Dei horietako bat errepikatu nahi izanez gero, pantailak markatu beharreko zenbakia erakusten duen bitartean Ok tekla sakatu besterik ez duzu. Telefonoa esku librean modura pasatuko da automatikoki, linea hartuko du eta hautatutako zenbakia markatuko du.

1. OHARRA: Bost zenbaki horietako bat esku librekoa erabili gabe markatzeko, hartu entzungailua markatzea nahi duzun zenbakia hautatutakoan.

3.8 "R" tekla

Telefono honek **R** tekla dauka (100 ms-ko irekiera tenporizatua). Tekla horrek telefonoa telefonoguneekin erabiltzeko aukera ematen du, baita tekla horrekin lotutako operadoreak eskaintzen dituen zerbitzu berezietara sartzeko ere.



3.9 Agendako edo sarrerako deien zerrendako informazioa ezabatzea

Memorian gordetako informazioa ezabatzeko:

1. Bilatu agendatik edo jasotako deien zerrendatik ezabatu behar den datua.
2. Sakatu Ezabatu tekla.
3. Pantailan **'EZABATU? B/E'** agertuko da. Sakatu **OK** berresteko.

3.10 Memoria betea

Pantailan **"MEMORIA BETEA"** agertuko da 60 memoriak betetzen direnean. Egoera horretan, telefonoak sartzen diren deiak erregistratzen jarraituko du.



4 Zerbitzu bereziak

4.1 Deiak desbideratzeko tekla

Telefonora deitzen dizutenean dei hori zuk hautatutako beste zenbaki batera automatikoki pasatzea aukera dezakezu (zerbitzu hori operadorearekin kontratatu behar duzu).

Deiak desbideratzeko:

- 1.Sakatu Desbideratzea tekla, eta pantailan hau agertuko da: SAKATU ZENB. + #. Telefonoa esku libreko modura pasatuko da, eta kode bat markatuko du.
- 2.Sartu desbideratutako deiak jaso nahi dituzun zenbakia eta sakatu # tekla berresteko.
- 3.Sakatu Esku Libreko tekla esekitzeko. Pantailan "AKTIBATUA" agertuko da.

Deien desbideratzea desaktibatzeke:

- 1.Sakatu Desbideratzea tekla, eta pantailan "DESAKTIBATUA" agertuko da. Telefonoa esku libreko modura pasatuko da, eta kode bat markatuko du.
- 2.Sakatu # tekla berresteko.
- 3.Sakatu Esku Libreko tekla esekitzeko.

4.2 Deia zain

Dei bat egiten ari zarela, beste dei bat jaso dezakezu. Une horretan, tonu batzuk entzungo dituzu elkarrizketari gainezarrita.

Dei hori jasotzeko, **Deia zain** tekla sakatu behar duzu. (Pantailan haxe bistaratuko da: **r_2**)

Horrela, lehen deia atxikita geratuko da. Elkarrizketa batetik bestera pasatzeko, sakatu **Deia zain** tekla berriro.

4.3 Hiruko deia

Funtzio honek linea banatako bi pertsonarekin elkarrizketa izateko aukera ematen dizu (zerbitzu hau operadorearekin kontratatu behar duzu).

Hiruko deia aktibatzea:

- 1.Hartu entzungailua eta markatu lehen pertsonaren zenbakia.
- 2.Sakatu **R** tekla komunikazio hori atxikitzeko.
- 3.Markatu hitz egin nahi duzun bigarren pertsonaren zenbakia.
- 4.Sakatu Hiruko Deia tekla. Orain, hirurok bata besteari entzun eta hitz egin diezaiozue. Pantailan "**HIRUKO DEIA**" agertuko da.

Hizketan ari zarela Hiruko Deia egitea

Hizketan ari zarela bigarren dei bat jasotzen baduzu, erantzundakoan (**Deia zain** sakatuz) hirurok parte har dezakezue elkarrizketan (**Hiruko Deia** sakatuz).



4.4 Ahots-postontzia

Ahots-postontziia aktibatzea:

Sakatu tekla 'POSTONTZIA->B/E' hautatu arte.

Sakatu **Ok** tekla. Zerbitzua aktibatuta dagoela adierazteko, pantailan gutunazalaren ikonoa agertuko da.

Telefonoa **esku libreko** moduan jarriko da automatikoki aktibatze-kodea markatzeko.

Sakatu Esku Libreak tekla esekitzeko.

Ahots-postontzia desaktibatzea:

Sakatu tekla 'POSTONTZIA->B/E' hautatu arte.

Sakatu **No/Ez** tekla eta gutunazalaren ikonoa desagertu egingo da zerbitzua desaktibatuta dagoela adierazteko.

Telefonoa esku libreko moduan jarriko da automatikoki desaktibatze-kodea markatzeko.

Sakatu **Esku Libreak** tekla esekitzeko.

4.5 Zerbitzurako sarbidea

1. Sakatu **Ahots-postontzia** tekla. Ekipoa Esku Libreak moduan jarriko da automatikoki eta aurrez grabatutako kodea markatuko du.
2. Entzun mezuak eta sakatu **Ahots-postontzia** tekla esekitzeko.

4.6 Bezeroarentzako zerbitzua

Tekla honen bidez, bezeroarentzako arreta-zerbitzura sar zaitezke zuzenean.

1.Hartu entzungailua linea izateko.

2.Sakatu **Euskaltel** tekla.

4.7 Reset

Telefonoa behar bezala ez dabilela konturatzen bazara:

1.Deskonektatu telefono-lineatik.

•Sakatu **Reset** botoia 5 segundoz (orratz bat edo zotz bat erabilita). Atzeko aldean dago, txirrinaren bolumen-hautagailuaren ondoan.



5 Arazoak konpontzea

Entzungailua hartzean, ez da ezer entzuten eta adierazle gorria pizten da
Egiaztatu entzungailuaren kablearen konexioa.

Telefonoa esekita dago, baina argi gorria piztuta dago.

Sakatu Esku Libreak tekla. Tekla hori ustekabean sakatu da eta telefonoa Esku Libreak moduan gelditu da eseki gabe.

Pantailan ikur arraroak agertzen dira eta telefonoak ez du erantzuten

Deskonektatu telefonoa lineatik. Arazoak bere horretan jarraitzen badu, sakatu *Reset* tekla gehitu ikonoa 5 segundoz.

Txirrina oso baxu entzuten da

Egiaztatu txirrinaren maila atzeko aldean.

Ahots-postontziko mezuen ikurra ez da desagertzen

Entzungailua eseki eta 2 segundo baino lehen berriro hartu da deia egiteko.

Hori konpontzeko, mezu berri bat utz dezakezu ahots-postontzian (beste telefono batetik deituz). Ondoren, mezua entzun eta eseki, eta utzi horrela gutxienez 2 segundoz. Arazoak jarraitzen badu, deitu Euskaltelen Bezeroarentzako Arreta-zentrora

Ez da agertzen deitzen duen pertsonaren zenbakia

Beharbada deitu duen pertsonak identifikazioa desaktibatu du.

Esku Libreak moduan ez da ezer entzuten

Egiaztatu bolumena telefonoaren eskuinaldean.

Batzuetan deitzen duen pertsonaren izena agertzen da eta beste batzuetan ez

Deitzen duenaren zenbakia agendan badago, pantailan haren izena eta zenbakia agertzen dira. Bestela, zenbakia bakarrik agertzen da.

Entzungailua hartzean ez da ezer entzuten eta adierazle argitsua ez da pizten

Egiaztatu gailuaren telefono-linearen konexioa.

6 Mantentze-lanak

Telefonoa garbitzeko, uretan bustitako zapi bat erabili behar duzu. Ez erabili produktu urratzailerik, ezta disolbatzailerik ere.

Ez jarri telefonoa bero-iturrietatik gertu, ezta eguzkiaren argitan zuzenean ere.

